

KANALAK

Zer bezeroei zuzenduko garen aukeratu eta gero, gure enpresaren kanala zein izango den zehaztu beharko dugu. Hau da, gure balio proposamena eta produktua ikasleei nola helaraziko diegun.

Gure kanal garrantzitsuena internet-a izango da. Gure bezeroei, gure kasuan, ikasleei, internet bidez iritsiko gara. Edozein adineko ikasleak izango dira gure bezeroak, eskola guztiei emango diegulako gure lizentzia erosteko aukera.

Gure zerbitzua internet bidez helaraziko dugu, dendak ez ditugu fisikoki izango. Baita ere, google play-en jarriko dugu ikasleek aplikazioa instalatu dezaten. Google play-en lizentzia erosi duten ikasleek pasahitz eta erabiltzaile bat izango dute aplikazioara sartu ahal izateko. Produktua lizentziaren bitartez banatuko diegu eskola desberdinei.

Laburtzen, zeharkako kanalak (dendak) ez ditugu izango, gure kanal bakarra internet-a izango da.

